



AGINDUA, 2025EKO EKAINAREN 27KOA, TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMOKO SAILBURUARENA, EUSKADIKO TURISMO MAHAIAREN FUNTZIONAMENDU- ETA ANTOLAKETA-ARAU BIDEA EZARTZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUA EGITEKO PROZEDURARI HASIERA EMATEN DIONA.

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 10.36 artikulua araber, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio turismoaren arloko eskumen eskusiboa, Konstituzioaren 148.1.18 artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

Turismoa Euskadiko ekonomiaren funtsezko zutabea da, enplegua eta aberastasuna sortzen duena. Gobernantza ireki eta parte-hartzailearen esparruan, funtsezkoa da zenbait mekanismo artikulatzea, turismo-sektoreko eragileak politika publikoen jarraipenean eraginkortasunez sartzeari ahalbidetuko dutenak, izan ere, esparru dinamikoa da eta etengabe eboluzionatzen ari dena.

Garrantzi horretaz jabetuta, eta Administrazio publiko autonomikoaren eta turismoaren sektoreko eragileen arteko lankidetzaren garrantzia aitortzeko tradizioarekin bat etorritik, turismoaren arloan parte hartzeko eta kontsultak egiteko mekanismo batzuk sortu dira. Turismo-jarduerari erregulatzea Euskadik bere gain hartu zuen lehen lege-arauaren aurretik ere, jada indargabetuta dagoen Turismoa Antolatzearen 16ko 6/1994 Legearen aurretik, hain zuzen, Euskadiko Administrazio turistikoak zenbait kide anitzeko kontsulta-organo sortu zituen, Administrazioa bera eta sektoreko enpresen ordezkariak haietan zirela.

Aipatu 1994/6 Legeak honako hau xedatzen zuen bere I. tituluan: *Behar beste neurri hartzea Euskadiko turismo-sektorea antolatzearen eta lege honen xede eta helburuak bermatzeko, lankidetzan arituz sektoreko agenteekin eta beste administrazio publikoekin.*

Euskadi erreferentziazko turismo-helmuga gisa finkatzeko, sektoreko eragileekiko koordinazioa eta baterako lana areagotu behar ziren, turismo-politika eraginkor eta efizientea diseinatu eta gauzatzeko zela ziurtatzeko. Horren ondorioz, Euskadiko Turismo Mahaia sortu zen urtarilaren 27ko 5/2015 Dekretuaren bidez, turismoaren arloko aholku-organoa birmoldatzea beharrezkotzat jo baitzen, eta Euskal Turismoaren Kontseilua arautzen zuen dekretua indargabetu zen, organo horren ordezkari indarrean dagoen Turismo Mahaia ezartzeko, funtzioak, osaera eta funtzionamendua birmoldatuz.

Indarrean dagoen Turismoaren uztailaren 28ko 13/2016 Legea onesteak aitortza eman zion Turismo Mahaia, lege-mailako arau batean. Hala, haren 6. artikuluan, Euskadiko Turismo Mahaia izatera ezartzen da, turismoaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailaren organo aholku-ematea den aldetik, eta xedatzen du, halaber, haren osaeran, berariaz eta nahitaez, egongo direla gizarte-eragileen eta sektore ekonomiko enpresarial turistikoaren ordezkariak.

Hain zuzen ere, Euskadiko Turismo Mahaian gizarte-eragileen ordezkariak sartzeko betebeharra izan zen Turismo Mahaia osaera aldatzea eragin zuena. Hori Euskadiko Turismo Mahaia sortzen



duen Dekretua aldatzen duen apirilaren 2ko 59/2019 Dekretuaren bidez egin zen, eta mahai horretan erakunde sindikalak sartzea xedatzen zuen.

Inguruabar ugari direla medio, araudi berria behar da, batez ere Euskadiko Turismo Mahaiaren osaerari eta funtzionamenduari dagokionez. Alde batetik, arau berriak onesteak, hala nola martxoaren 5eko 26/2024 Dekretua, Turismo-gidarien Euskadiko Jarduerarena, beharrezkoa egiten du Turismo Mahaiko osaera berregituratzea. Bestetik, egokia da orain arte kontuan hartu ez diren gaiak sartzea, hala nola ordezkapenak, agintaldiaren iraupena, kideen eskubideak eta betebeharrak, eta Batzorde Iraunkor bat sortzea. Antolaketa-izaerako alderdiak dira, Turismo Mahaiaren funtzionamendua askoz operatiboagoa eta argiagoa izatea ahalbidetuko dutenak.

Xedapen Orokorrak egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen helburua da xedapen orokorrak prestatzeko prozedura antolatzea eta, horretarako, 12.1 artikuluan ezartzen du prozedurek jorratzen duten dena delako gaian eskumena daukan sailaren titularra den sailburuaren aginduz abiarazi behar direla prozedurok. Halaber, lege horren 13.1 artikulua ezartzen du prozedura hasteko agindu honek zer eskakizun bete behar dituen eta zer eduki jaso behar dituen gutxienez.

Ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Agintzea has dadila Euskadiko Turismo Mahaiaren funtzionamendu- eta antolaketa-araubidea ezartzen duen dekretu-proiektua egiteko prozedura.

1.- Xedea eta helburua

Proiektatutako xedapenaren xedea da Euskadiko Turismo Mahaiaren funtzionamendu- eta antolaketa-araubidea ezartzea, baina horrek ez du esan nahi hura desagertu egingo denik, Turismoari buruzko uztailaren 28ko 13/2016 Legearen 6. artikulua premisarekin bat; izan ere, artikulua horren 3. apartatua aurreikusten denez, «Erregelamenduz zehaztuko da zeintzuk diren Euskadiko Turismo Mahaiaren antolamendua, funtzioak, osaera eta funtzionamendua».

2.- Bideragarritasun juridikoa eta materiala

Araua bideragarria da juridikoki eta materialki, izan ere, Euskadiko turismo-araudiaren parte den dekretu bat aldatzean datza. Zehazki, proposatzen den arau-proiektuak arautzen duen gaia Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 10.36 artikuluan dago babestuta, eta artikulua horrek xedatzen du Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa duela turismoan.

Proiektatutako araua, 6/2022 Legearen 13.1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera, bat dator indarrean dagoen zuzenbidearekin; izan ere, Konstituzioaren 148.1.18 artikulua xedatzen du autonomia-erkidegoek eskumen eskusiboa dutela turismoa beren lurralde-eremuan sustatzeko eta antolatzeko. Aurreikuspen hori Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 10.36 artikuluan jasota dago, eta lurralde historikoei ez zaie esleitzen 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoan, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komun eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremanei buruzkoan.

Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 5. artikuluaekin lotuta 18. artikulua ezarritakoa kontuan izanda eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala

ezartzen duen otsailaren 11ko 38/2025 Dekretuarekin bat etorritz, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila da arlo horretan eskumena duen organoa.

3.- Ordenamendu juridikoan izango dituen eraginak

Arau honek ordenamendu juridikoan izango duen eragina izango da Euskadiko Turismo Mahaiaren funtzionamendu-araubidea, osaera eta antolaketa ezarriko dituen dekretu bat egitea.

Horren arrazoia da Euskadiko Turismo Mahaiaren erregulazioa egokitu behar dela, orain arte kontuan hartu ez diren gaiak txertatzeko, hala nola ordezkapenak, agintaldiaren iraupena, kideen eskubideak eta betebeharrak, eta Batzorde Iraunkor bat sortzea. Horiek antolaketa-izaerako alderdiak dira, Turismo Mahaiaren funtzionamendua operatiboagoa eta argiagoa izan dadin. Era berean, 59/2019 Dekretuaren bidez arauan egindako aldaketaren ondoren araudi sektorial ugari onetsi direnez, beharrezkoa da Turismo Mahaiko osaera aldatzea.

Proiektatutako arauak indargabetu egiten du gaur egun indarrean dagoen araua, 5/2015 Dekretua, urtarrilaren 27koa, Euskadiko Turismo Mahaia sortzen duena, baina horrek ez du esan nahi, Turismoaren 13/2016 Legearen 6. artikuluen premisaren arabera, mahaia desagertuko dela.

Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 18. artikulua Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde autonomoei, zuzenbide pribatuko erakunde publikoei eta sektore publikoko partzuergoei dagozkien kide anitzeko organoak arautzen ditu. Era berean, nabarmendu behar da Estatuak kide anitzeko organoen arloan duen oinarritzeko legeria Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluen II. kapituluaren hirugarren atalean jasota dagoela.

4.- Aurrekontuan duen eragina

Arau honetan aurreikusitakoak ez dakar aldaketarik orain arte aurreikusitako Eusko Jaurlaritzaren gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuei dagokienez, eta ez dakar berekin Autonomia Erkidegoko Administrazio honentzako zuzeneko betebeharrak ekonomikoak sortzea, eskura dauden aurrekontu-baliabide arruntez gain finantzaketa gehigarria eskatuko luketenak, eta, beraz, ez du eraginik aurrekontuan.

Lortu nahi diren helburuak kontuan hartuta, arau berriak ez dakar administrazio-kargarik herritarrentzat.

5.- Generoaren inguruko eragina

Euskadiko Turismo Mahaia, egun, 20 emakumek eta 16 gizonek osatzen dute, kontuan hartuta mahaikide titularrak zein ordezkariak, bai eta Turismo Mahaian ordezkariak duten administrazioek beren ordezkari izateko izendatutako kideak ere.

Izapidetzen ari den agindu-proiektuak ez du inolako eraginik generoaren ikuspegitik. Beraz, ez da generoaren arabera eraginari buruzko txostenik egin behar, aplikagarria baita Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren abuztuaren 21eko 40/2012 Ebazpenaren lehen jarraibidearen 2. puntuko a) letran ezarritako salbuespena —ebazpen horren bidez argitaratu zen Gobernu Kontseiluaren Erabakia, genero-eraginaren aurreko ebaluaziorako jarraibideak onartzekoa—: «Dela emakumeen eta gizonen egoeran eraginik ez dutelako, dela eragin hori hutsaren hurrengoa delako, generoaren ikuspuntutik garrantzirik ez dutenak».

Kasu honetan, arauaren sustatzailearen organoak, generoaren arabera inaktuaren txostena aurkeztu beharrean, aldaketak generoaren ikuspegitik garrantzirik ez izatea behar bezala justifikatzen duen txostena aurkeztu beharko du, gidalerro horien II. eranskinean adierazi bezala, eta, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak dagokion egiaztapen-txostena bideratu beharko du.

6.- Gaia dela eta egokitzen diren izapideak eta txostenak

Aldez aurretik, adierazi behar da ondoren zehazten diren izapideak eta txostenak «Tramitagune» izapidetze elektronikoko aplikazio informatikoaren bidez izapidetuko direla, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren zenbait prozeduraren izapidetze elektronikorako jarraibideak onartzen dituen 2012ko azaroaren 27ko Gobernu Kontseiluaren Erabakiaren arabera eta arau-xedapen orokorrak lantzeko prozeduraren Oinarriko Izapidetze Ereduaren arabera (Gobernu Kontseiluak 2025eko maiatzaren 13an egindako bilkuran onetsitako Erabakia, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen arabera).

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 13.1.e) artikuluan xedatutakoari jarraikiz, hasteko Aginduan adieraziko dira proposatutako araudiaren gaia eta edukia kontuan hartuta egokitzen diren izapideak eta txostenak.

Aurreko paragrafoan adierazitakoa kontuan hartuta, hona hemen aurreikusitako dekretu-proiektua egiteko eta onesteko behar diren izapideak eta txostenak:

A. Aldez aurretik, herritarrei kontsultatzea

6/2022 Legearen 11. artikulua arabera, aldez aurreko kontsulta publikoa egin da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan, 15 egunez, eta, herritarrei eskatu zaie iritzia eman dezatela ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoei buruz, hura onartzeko beharri eta egokitasunari buruz, arauaren helburuei buruz eta etorkizuneko arauak uki ditzakeen pertsona eta erakunde adierazgarrien iritzia biltzeko bertan.

Aurretiazko kontsulta hori 2025eko maiatzaren 20tik ekainaren 9ra bitartean egin da (biak barne), 2025eko maiatzaren 19an Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoko Iragarki Taula Elektronikoa eta Irekia plataforman iragarki bat argitaratuz. Plataforma hori herritarren eta Administrazioaren arteko komunikazio zuzeneko kanala da, Internet bidezkoa, hizkuntza ez-administratiboa darabilena, eta, han, besteak beste, Eusko Jaurlaritzaren lege-proiektuak eztabaidatu, baloratu eta herritarren iritziekin osatzen dira.

Kontsultaren emaitza araua egiteko prozeduran sartuko da, kontsultan parte hartu duten pertsonen eta erakundeek emandako iritzien laburpena jasoko duen txosten baten bidez.

B. Hasteko agindua

Aldez aurreko kontsulta publikoa amaituta, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuak dekretu-proiektua egiteko prozedura hasiko du, 6/2022 Legearen 12. artikuluan xedatutakoaren arabera.

6/2022 Legearen 13.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, hasiera-agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratu behar da. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratzeak Jaurlaritza osatzen duten sail guztiei automatikoki jakinaraztea ekarriko du,

ekimenari buruzko oharrak egin ditzaten. Hala eta guztiz ere, araua egiteko prozedura hasteko Agindua Tramitagune aplikazioaren bidez jakinaraziko zaie Eusko Jaurlaritzako sailei.

Testua bi hizkuntza ofizialetan idatziko da, euskaraz eta gaztelaniaz, argitaratu ahal izateko.

Arau-xedapen orokorrak lantzeko prozeduraren Oinarrizko Izapidetze Ereduarekin bat (Gobernu Kontseiluak 2025eko maiatzaren 13an egindako bilkuran onetsitakoa), prozeduran interesdun irizten diren pertsonen eta erakundeen jakinaraziko zaie prozedura hasi dela, ondorengo izapideetan —adibidez, jendaurreko informazioaren izapidean— interesdun berriak agertzeko aukera gorabehera.

C. Euskadiko Turismo Mahaiaren funtzionamendu- eta antolaketa-araubidea ezartzen duen dekretu-proiektuaren idazketa

Proiektuaren idazketa honako hauetan xedatutakora egokituko da: 78/2023 Ebazpena, uztailaren 28koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko jarraibideak onartzeko Erabakia; Lehendakariak 1994ko martxoaren 18an emandako jarraibideak, hizkera sexista desagerrarazteko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren xedapen arauemaileetatik eta administrazio-dokumentuetatik, bai eta ekintza instituzionalari buruzko informazio eta zabalkundetik ere.

Era berean, kontuan hartuko dira Eusko Jaurlaritzak 2020ko uztailaren 7ko bilkuran onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren Administrazio Instituzionaleko kide anitzeko organoetarako Jarduera Planean jasotako neurriak. Plan horrek askotariko organoak arrazionalizatzeko eta hobetzeko jarduerak eta neurriak ezartzen ditu (araudiak eta juridikoak, erregelamenduzkoak, antolaketa-arlokoak, kudeaketakoak eta funtzionamendukoak, etab.), bai zeharkakoak, kide anitzeko organo guztientzat, bai espezifikoak horietako organo batzuentzat —horien artean dago Euskadiko Turismo Mahaia—, eraginkortasun- eta efizientzia-irizpideen barruan esleituta dituzten eginkizunetarako tresna baliagarria izan daitezen.

D. Aldez aurreko onarpena

Behin eginda, dekretu-proiektuaren testua aldez aurretik onartu beharko da, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren Agindu bidez; betiere Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Espedientearen instrukzioa egiteko eskumena duen organoak, nahitaez, arau-eraginaren azterketaren memoria egingo du, aipatu xedapenaren 15.3 artikuluan aurreikusitako moduan eta bertan aipatutako edukiak kontuan hartuta.

Era berean, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko zerbitzu juridikoari txosten juridiko bat egiteko eskatuko dio. Txosten horren helburua izango da proiektuaren oinarrien defentsa juridikoa egitea, proiektuaren edukia legera eta zuzenbidera egokitzea eta kasu horretan ezartzen diren araugintza-teknikako jarraibideak betetzen direla zaintzea.

Azkenik, espedientearen instrukziorako eskuduna den organoak memoria ekonomiko espezifiko egingo du. Horrek, aurretiko onespina jaso duen testuan izandako aldaketak kontuan hartuta, hasierako aginduan aurreikusitako kostuen balioespenaren balizko zehaztapenak edo desbideratzeak berretsi edo adieraziko ditu, bai eta, orobat, gastuak eta diru-sarrerak zenbatuta, Administrazio Publikoaren aurrekontuetan izango duen eragina, finantzaketarako iturri eta moduak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ekonomia- eta araudi-kontrolaren gaineko arauak zehaztutako beste alderdi guztiak ere.

Prozeduran sortzen den garrantzi juridikoko informazioa argitaratuko da Legegunea euskal araudiaren atarian, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak ezartzen duenarekin bat etorriz.

E. Nahitaezko txostenak eta irizpenak

Txosten hauek eskatuko dira:

- a) Enpresaren gaineko eraginari buruzko txostena: Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- b) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egiaztapen-txostena.
- c) Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, xedapen orokorrek euskararen erabileraren normalizazioan zer eragin duten eta hizkuntza arloan indarrean dagoen araudia betetzen ote duten argitzeko, 233/2012 Dekretuak, azaroaren 6koak, Xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duenak, arautzen duen eran.
- d) Herritarrek Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzaren nahitaezko txostena, erakunde instituzionalen barne-egituraketari, antolaketari eta sorrerari buruzkoa, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 12.d) artikuluan xedatutakoarekin bat.
- e) Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua erakunde autonomoaren txostena. 9/2007 Legearen 4.1.o) artikulua ezartzen du haren nahitaezko txostena eskatuko dela, proiektuak kontsumitzaileei eta erabiltzaileei eragiten dielako.
- f) Euskadiko Kontsumoko Kontsulta Batzordeari kontsulta egitea, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko apirilaren 27ko 4/2023 Legearen 10.a) artikuluekin bat. Artikulu horrek xedatzen du kontsulta nahitaezkoa dela, izapidetzen ari den proiektu arauemaileak gai horri eragiten dielako.
- g) Proiektua Euskadiko Turismo Mahaira eramatea, Euskadiko Turismo Mahaia sortzen duen 5/2015 Dekretuaren 2.c) artikulua aplikatuz; kontsulta-organo horri dagokio turismoaren arloko proiektu arauemaile berriak eztabaidatzea eta aztertzea.
- h) Lehiaren Euskal Agintaritzaren txostena, horri buruzko 1/2012 Legearen 3.5 artikuluari jarraikiz, artikulua horren arabera arlo horri eragiten dioten proiektuetan haren irizpena nahitaezkoa baita.

6/2022 Legearen 16. artikuluan eta administrazioa sinplifikatzeko printzipioaren arabera, apartatu honetan adierazitako izapide guztiak batera eta egintza bakar batean bideratuko dira; izan ere, haien izaeragatik, aldi berean susta daitezke, eta ez da nahitaezkoa bata bestearen ondoren betetzea.

F. Entzunaldia eta jendaurreko informazioa

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 17.1 artikuluan ezartzen den entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidea egingo da. Izapide horren bidez, herritarrek parte hartzeko eskakizuna beteko da.

Entzunaldia eragindako herritarrek biltzen edo ordezkatzten dituzten erakunde eta elkarten bidez egingo da; erakunde eta elkarte horiek legeak aitortutakoak izan behar dute, eta haien helburuek lotura zuzena izan behar dute proiektatutako xedapenaren xedearekin.

Herritarrei arreta integral eta multikanala emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izateko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren 15. artikuluan arabera, erakundeek eta prozedura izapidetzeko ardura duen organoaren arteko komunikazioak bitarteko telematikoen bidez egingo dira soilik.

G. Beste administrazio batzuek parte hartzea eta haiei kontsulta egitea

Ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 18. artikulua betez. Xedapenaren testua aurretiaz onartzen dela argitaratzen denetik hilabeteko epe amankomun beraren barruan, xedapen orokorrak egiteko prozeduran parte hartzeko aukera emango zaie foru-aldundiei, hiru lurralde historikoetako hiriburuetako udalei eta EUELi.

Ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 16. artikuluan xedatutakoaren arabera, hasteko Agindu honen bidez agindutako nahitaezko txostenen eta irizpenen eskaera, entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidea eta beste administrazio batzuen parte-hartzea eta haiei kontsulta egitea aldi berean eta hilabeteko epe komunean egingo dira, aldez aurreko onarpena duen xedapenaren testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoan argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

Ez da beharrezkotzat jotzen Europar Batasunaren aurrean inolako izapiderik egitea.

H. Nahitaezko txosten eta irizpen funtsezkoak

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 19. artikulua xedatzen duenez, espedientea aurreko artikuluetan aurreikusitako izapideen arabera osatu ondoren, honako txosten hauek eskatu eta bete beharko dira:

- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen (EGAB) txostena: 8/2012 Legearen 3.1.b) artikuluan xedatutakoarekin bat, haren txostena nahitaezkoa da, arau-proiektua ekonomia- eta gizarte-politikarekin lotuta dagoela ulertzen delako.
- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ekonomia- eta arau-kontrolari buruzko txostena: 6/2022 Legearen 23. artikuluan ezarritakoa betez, ekonomia- eta araudi-kontrolari buruzko txostena eskatuko zaio Kontrol Ekonomikoko Bulegoari, urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginaren III. tituluko IV. kapituluan ezarritakoaren arabera.

I. Prozeduraren azken espedientea eta memoria laburra

Azken espedientea 6/2022 Legearen 24.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz eratuko da. Era berean, prozedura osoaren memoria labur bat erantsiko da, 24. artikuluko horren 2. eta 3. apartatuetan adierazitako edukiarekin.

J. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren Irizpena eta Eusko Legebiltzarrera bidaltzea

Espedientea osorik izapidetu ondoren, eta ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 25. artikuluaekin bat, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena eskatuko da, eta dokumentazio bera helaraziko zaio Eusko Legebiltzarrari, hala baitago xedatuta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea.

K. Gobernu Kontseiluaren onarpena

Egite-prozedura amaitzean, dekretu-proiektua Gobernu Kontseiluak onartu beharko du, 6/2022 Legearen 27. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

L. Proiektuaren itzulpena edo idazketa elebiduna egiteko teknika

Ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 5. artikuluan xedatutakoaren arabera idatzi beharko da dekretu-proiektua. Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarriko Legearen (10/1982 Legea, azaroaren 24koa) 8.1 artikuluan ezarritakoa betetzeko, IZO-Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak itzuliko ditu testuak, halaxe xedatzen baitute 6/2022 Legearen 27.3 artikulua eta apirilaren 3ko 48/2012 Dekretuak, EAEko Administrazio Orokorreko eta Erakunde Autonomoetako itzulpen-zerbitzuak zentralizatzeko agindua ematekoak.

M. Urteko araugintza-plana

Proiektatutako araua berariaz sartu da 2025erako urteko araugintza-planean, zeina Gobernu Kontseiluak 2025eko otsailaren 25ean egindako bileran onartu baita.

Plan horretan, Euskadiko Turismo Mahaia sortzen duen urtarrilaren 27ko 5/2015 Dekretua aldatzea aurreikusten da, baina, azkenean, eta egin beharreko aldaketen muntaren eta kopuruaren ondorioz, dekretu berri bat egitea erabaki da.

Bigarrenena.- Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 11ko 38/2025 Dekretuaren 6.1.a) artikulua arabera, Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza izendatzea prozedura izapidetzeko organo arduradun, Turismo eta Merkataritzako sailburuordeak gainbegiratuta, otsailaren 11ko 38/2025 Dekretuaren 4.2.p) artikuluekin bat.

Hirugarrena.- Agindu honen berri ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan, 6/2022 Legearen 13.2 artikuluan eta Arau-xedapen orokorrak lantzeko prozeduraren Oinarrizko Izapidetze Eredua onesten duen Gobernu Kontseiluaren 2025eko maiatzaren 13ko Erabakian xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren eguna.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua,
JAVIER HURTADO DOMINGUEZ.

ERANSKINA

Hasteko Aginduari erantsitako txostena

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 13.1.c artikulua ezartzen duenez, xedapen arauemailearen proiektu bat hasteko aginduari, besteak beste, dossier erantsi bat erantsi behar zaio, proiektatutako arauaren xede izan diren inpaktu-ebaluazioak, emaitza-ebaluazioak edo beste mota batekoak edo aurreko puntuaren arabera hark eragindako xedapenak jasoko dituen. Kontuan izanda generoaren arabera eraginaren alde aurretiko analisiak, horien artean sartuko dira egin nahi den arauak genero-ikuspegitik izan dezakeen garrantziaren lehen estimazio bat, berdintasunerako administrazio-unitateen aholkuarekin.

Dossier honek aipatutako arauak ezarritakoa betetzen du.

1.– Inpaktu-ebaluazioak, emaitza-ebaluazioak edo proiektatutako arauaren xede izan diren bestelako ebaluazioak edo haren eraginpeko xedapenak, ordenamendu juridikoan izan ditzaketen ondorioen aurreikuspenaren arabera, xede berarekin indarrean dauden eta araua indarrean jartzearen ondorioz esanbidez edo inplizituki aldatuko diren arauak ere adierazita.

Proiektuan den arauaren xedea da Euskadiko Turismo Mahaiaren funtzionamendua eta antolamendua arautzea, Euskadiko Turismo Mahaia sortzen duen urtarrilaren 27ko 5/2015 Dekretuak arautzen duena baino modu zehatzagoan.

Dekretu hori Euskadiko Turismo Mahaia sortzeko apirilaren 2ko 59/2019 Dekretua aldatzen duen Dekretuaren bidez aldatu zen, zeinaren bidez zenbait aldaketa egin ziren: Dekretuaren 1. artikulua aldatu zen, Jauralaritzaren administrazio-egituraren izendapenetara egokitzeko;

-
- Euskadiko Turismo Mahaiaren gizarte-eragileen ordezkari bat sartu zen, bat etorritik Turismoari buruzko uztailaren 28ko 13/2016 Legearen seigarren artikuluko hirugarren paragrafoarekin, zeinak agintzen baitu mahaiko kideen artean ezinbestean egongo direla gizarte-eragileen eta turismoko enpresen sektore ekonomikoaren ordezkariak; eta
- azken xedapenetako hirugarrenari beste idazketa bat eman zitzaion, xedapen horrek jasotzen duen arauko erreferentzia gaur egun indarrean dagoen legeriari egokitzeko.

Proiektatutako arauak ordenamendu juridikoan izango duen eragina Euskadiko Turismo Mahaiaren funtzionamendu-araubidea, osaera eta antolamendua ezarriko dituen dekretu bat egitean datza.

Proiektatutako arauaren emaitza izango da Euskadiko Turismo Mahaiaren araudia egokitzea, orain arte aintzat hartu ez diren gaiak sartzeko, hala nola ordezkariak, agintaldiaren iraupena, kideen eskubideak eta betebeharrak eta batzorde iraunkor bat sortzea, hau da, antolakuntzari buruzko alderdiak, Turismo Mahaiaren funtzionamendua eraginkorragoa eta argiagoa izatea ahalbidetuko dutenak.

Era berean, jarraian iragartzen den turismo-araudi sektoriala onartzeak, 59/2019 Dekretuaren bidez arauan egindako aldaketaren ondoren: beharrezko egiten du lehendik dauden bokalak aldatzea:

- 97/2022 Dekretua, uztailaren 26koa, bidaia-agentziei buruzko Dekretua bigarren aldiz aldatzen duena; bigarren xedapen gehigarrian, Euskadiko autonomia-erkidegoko araudiari lotutako bidaia-zerbitzuak gehitzen dira;

- Agindua, 2024ko martxoaren 14koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez garatzen baita Euskadiko Turismo Enpresa eta Jardueren Erregistroari buruzko uztailaren 16ko 112/2019 Dekretua, turismo aktiboko eta abenturako enpresei dagokienez, zeinak aukera ematen baitu enpresa horiek Euskadiko Turismo Enpresa eta Jardueren Erregistroan inskribatzeko;
- 26/2024 Dekretua, martxoaren 5koa, Turismo-gidarien Euskadiko Jarduerarena; nahiz eta profesional horiek jada bazuten ordezkaritza Euskadiko Turismo Mahaian, bidaia-agentziekin partekatua.

Proiektatutako araua bat dator indarrean dagoen zuzenbidearekin, izan ere, Konstituzioaren 148.1.18 artikulua ezartzen duenez, autonomia-erkidegoek eskumen eskusiboa dute beren lurralde-eremuan turismoa antolatzeke; aurreikuspen hori Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.36 artikuluan jasota dago, eta Lurralde Historikoei zitzaien esleitu Foru Erakundeen eta Lurralde Historikoen arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legean. Turismo-jarduera antolatzeke eskumen hori ere ez da jasotzen Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikuluan udalerriei esleitutako eskumenen artean.

Tokiz gairik erakundeek ezarritako turismo-mahaiei dagokienez, ez proiektatutako arauak eta ez Euskadiko Turismo Mahaia existitzeak ez dakarte bikoiztasunik, apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 16. artikuluko 3. eta 4. apartatuek adierazitako zentzuan; izan ere, tokiz gairik mahai horien eginkizunek eta Euskadiko Turismo Mahaia eginkizunek ez dute bat egiten.

Proiektatutako araua onartzeak aipatutako urtarilaren 27ko 5/2015 Dekretua indargabetzea ekarriko du, baina, uztailaren 28ko 13/2016 Legearen 6. artikuluen premisapean, horrek ez du ekarriko araua desagertzea. Halaber, ez du ekarriko beste araurik aldatzea edo indargabetzea.

2.– Proiektatutako arauak generoaren ikuspegitik duen garrantziari buruz eginiko hasierako azterketa arrazoitua.

Proiektatutako arauak ez du eraginik emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan EAEko botere publikoen jarduna gidatu eta bideratu behar duten printzipio orokorretan.

Horrela, eta bat etorritik Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu batekina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legearen 3. artikuluan adierazitakoarekin eta generoaren arabera eragina alde aurretik ebaluatzeke aipatutako jarraibideetan araututako salbuespenekin, dekretu-proiektu honetan, hauek dira arau-proiektuak generoaren ikuspegitik eraginik ez duela irizteko arrazoiak:

- **Tratu-berdintasuna:** proiektatutako arauak ez du ez zuzeneko ez zeharkako diskriminaziorik ez sortzen, ez eragiten, ez ahalbidetzen; izan ere, arauak ez du eraginik egoera berean dauden bi pertsona sexu-zioengatik edo sexuarekin zuzenean lotutako zirkunstantziengatik (haurdunaldia edo amatasuna, esaterako) bata bestea baino okerrago tratatzearen gainean, eta ez du eragiten sexu bereko kideen proportzio nabarmen handiagoa.
- **Aukera-berdintasuna:** ez da beharrezkoa, proiektatutako araua onartzearen ondorioz, emakumeek eta gizonen eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak eta gainerako oinarriko eskubideak modu eraginkorrean baliatzeko neurriak hartzea, eskubide horietan inolako eraginik ez duelako.

- **Emakumeen kontrako indarkeria matxista prebenitzea, artatzea eta desagerraraztea:** ez da uste proiektatutako arauak emakumeen aurkako indarkeria matxistaren prebentzioan, arretan eta desagerraraztean eragin dezakeenik, dena delakoa izanik indarkeria horren forma.
- **Aniztasunarekiko eta desberdintasunarekiko errespetua:** arau-proiektuak ez du eraginik sexuen berdintasunerako prozesua emakumeen eta gizonen arteko biologiari, bizi-baldintzei, jomugei eta premiei buruzko desberdintasunak eta aniztasuna eta emakumeen eta gizonen kolektiboen barruan dauden ezberdintasunak errespetatuz egitearen gainean; izan ere, arauak berdin tratatzen ditu arauaren xede diren herritar guztiak.
- **Genero-ikuspegia txertatzea:** Era honetara ulertu behar da genero-ikuspegia txertatzea: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian desberdinak sistematikoki kontuan izatea eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horiek planifikatzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko fase guztietan, desberdinkeriak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketa zehatzak gehitzea. Proiektatutako arauak ez duenez eraginik emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrianetan, proiektatutako arauan ezin da helburu eta jarduera espezifikorik txertatu desberdinkeriak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko.
- **Ekintza positiboa:** Ez da beharrezkotzat jotzen bizitzaren hainbat eremutan gertatzen diren sexuagatiko egitatezko desberdinkeriak ezabatzeko edo murrizteko neurri espezifikoak eta aldi baterakoak sartzea; izan ere, proiektatutako aginduak ez du eragiten eta ez du inolako eraginik sexuagatiko egitatezko desberdinkerietan.
- **Sexuaren araberako rolak eta estereotipoak ezabatzea:** proiektatutako aldaketa-dekretuak ez du eraginik emakumeen eta gizonen desberdinkeria oinarri diren sexuaren araberako rol sozialetan eta estereotipoetan –horien arabera, emakumeei esleitzen zaie etxeko eremuaren ardura, eta gizonei, berriz, eremu publikoarena–; izan ere, erabilera turistikoko etxebizitzetan eta geletan ostatu ematen diharduten guztiei eskubide eta betebeharrak ematen dizkie.
- **Ordezkaritza orekatua:** pertsona anitzeko administrazio-organoetan ordezkaritza orekatutzat joko da, hain zuzen, sexu biek, gutxienez, % 40ko ordezkaritza dutenean. Euskadiko Turismo Mahaia, zehazki, 20 gizonezko eta 16 emakumezko osatzen dute gaur egun, hau da, mahaia osatzen duten erakundeen ordezkari diren bokalen % 55 eta % 45 dira, hurrenez hurren.
Bokalak Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuak izendatzen baditu ere, bokal izango den pertsona fisikoaren erabakia Euskadiko Turismo Mahaian ordezkariutako erakundearen esku dago; beraz, Mahaiaren azken osaera ez dago ez arauaren esku zuzenean ez Mahaiaren beraren esku. Aurrekoarekin bat etorriz, Mahaia osatzen duten erakundeei gonbita egin beharko litzaieke, Mahai osatzean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan dadin saia daitezten.
- **Koordinazioa eta elkarlana:** araua proposatu duen organoak bete egiten du araua egiteko prozeduran emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan egiten dituen jarduerak

koordinatzeko eta lankidetzan aritzeko betebeharra, esku-hartze eraginkorrak eta baliabideen erabilera arrazionalarekin bat datozenak egin ahal izan daitezten.

Adierazitakoarekin bat, ulertu behar da proiektatutako aldaketa-dekretuak ez duela inolako eraginik generoaren ikuspegitik.